

Jesus historikoa: zer nahi izan, zer erakutsi, zer egin zuen?

Jose Antonio Pagola*

Nor izan zen Nazareteko Jesus? Zer nahi izan, zer erakutsi, zer egin zuen? Galdera hauek ez zaizkie axola kristauei bakarrik. Kristau-eliza bateko kide izan gabe ere, gizon-emakume askok zuzentzen ditu gaur egun bere begiak Jesusengana. Batzuentzat gizateriaren ondarea da Jesus (*J. Onimus*), giza historian orain arte izan den gizonik onena. Beste batzuentzat, Jainkoaren benetako irudia adierazi duen lehenengo gizakia da, gizakien beldur, handinahi eta mamuak Jainkoari erantsi ez dizkion lehenengoa (*H. Wolf*). Beste batzuek uste dute Jesusek Jainkoaren erregetzaz aldarrikatu duen mezua gizateriak sortu duen sinbolo erlijiosorik sendoena dela (*Fuellenbach*), eta besterik ez bezalako oinarrizko ardatz gerta daitekeela gaur egungo kri-

sialdian gizakiak etorkizun itxaropentsuagorako bidea egin ahal izateko.

1. Galileako judua

Augusto enperadore zela jaio zen Jesus, Herodes Handia K. a. 4. urteko udaberrian hil aurretik. Ezin da erabaki zehazki jaiotze-urtea. Gure aroko 6. eta 4. urteen artean jaio zela uste dute historialariek. Gurutzean hil zuten Jerusalem, 30. urteko apirilaren zazpian, seguruenik; eta Pontzio Pilato prefektuak eman zuen hura hiltzeko epaia.

Bi ebanjelarik, arrazoi teologikoak direla medio, Belemen jaio zela dioten arren, Jesus Nazareten jaio zela esan dezakegu ia segurtasun osoz. Gurasoak Maria eta Jose deitzen ziren. Arameera

* Donostiako Teologi eta Pastoral-Ikastetxeko zuzendari. Donostia.

zuen ama-hizkuntza. Ez dakigu irakurtzen eta idazten ba ote zekien. Hebreera ere bazekien; hebreera zen literatur hizkuntza, eta hizkuntza horretan zeuden idatzita sinagogan irakurtzen ziren liburu sakratuak. Ikerlarien artean, geroz eta gehiago dira Jesus grekoz ere zertxobait mintzo zela uste dutenak; batez ere, Nazaretetik bost kilometro eskasera zegoen Galileako Seforis hiri garrantzitsuan berreraikitze-lanetan jardun zuela onartzen bada. Nazaret herrixkan hazi zen Jesus, Galilea Behereko eremu menditsuan. Familiaren baitan eta larunbatetan ospatzen ziren bilera erlijiosoetan ikasi zuen Jainkoarengan sinesten. Ez zen joan inongo lege-maisuren eskolara, ez zen izan inongo lege-maisuren ikasle. Bere mezua hots egiten duenean, ez du aipatzen inongo lege-maisurik. Jainkoarekin duen bere esperientzia propioa adierazten du, naturatik edota nekazarien eguneroko bizitzatik ateratako parabolon, sinboloen eta konparazioen bidez.

Jesus ez zen izan zehazki gaur egungo arotzen tankerakoa. Artisaua zen, hainbat lanbide desberdinetan ziharduena. Segur aski, inguruetako herri txikietan lan egin ohi zuen: etxe txikiak eraikitzen, euriak hondatutako teilatuak konpontzen, zurezko ateak eta leihoak egiten, uztarriak eta goldeak konpontzen.

2. Herri zapalduaren sufrimenean bat eginez

Erromatar inperioaren menpean

zegoen herri batean jaio zen Jesus. K. a. 63. urtean Pompeio jenerala Jerusalem sartu zenetik, Erromak dominatzen zuen zonalde guztia, zela Herodes Handia eta haren semeak bezalako errege morroien bidez, zela, zuzenagoko moduan, prefektuen bidez.

Hautzarotik ezagutu ahal izan zuen Jesusek erromatarren krudelkeria. Hilabete batzuk baino ez zituen Jesusek, Varo jeneralak matxinada bat zapaldu eta Jerusalem inguruan bi mila judu gurutziltzatu zituenean. Aldi berean, Gaiok, Galileara iritsi, Seforis hiria eta inguruko herrixkak erre eta nekazari andana eraman zuen esklabo. Eraso anker hori denbora luzean gordeko zuten oroimenean. Horrelako tragediak ez dira ahazten herrixketan. Hautzarotik entzun zuen hori guztia Jesusek, bihotza jota.

Urte batzuk geroago garbi egiaztatu ahal izan zuen, erromatarren zapalketa ez zela arlo militarra mugatzen, baizik eta bere herria esplotatzen eta pobregotzen ari zirela. Hala, Erromak babestutako gutxiengo bat lurak eta aberastasunak metatzen ari zen bitartean, nekazari gehienak geroz eta pobregoa ziren: batetik, gobernari zerga ugari ordaindu behar zitelako eta, bestetik, Tenplurako hamarrenak eta hasikinak eman behar zituztelako. Jesusek negarrez ikusten zituen nekazari hauek, Seforisetik zetozen zerga-biltzaileek mahats edo ale bildu berriak

eramaten zituztenean. Hainbat nekazari beren lurra eman beharrean gertatzen ziren, zorrei erantzun ahal izateko. Ez zen hori gutzia esplotazio ekonomiko hutsa. Umilazioa zen, gainera, eta lur hura askatasunean goza zezaten opari eman zien Jainkoaren kontrako oldarra.

Baina Israeliek bazuen arrisku larriago bat. Alexandro Handiaren inbasioaz geroztik (K. a. 333), kultura helenistak Israelen gero eta indar handiagoa hartzen jarraitzen zuen, herriaren nortasuna arriskuan ezarriz. Etsigarria zen egoera. Antioko Epifanesen aurkako makabearren altxamendua (K. a. 160) ezerezean gelditu zen, esateko. Herodes Handiak eta haren semeek, Erromaren nahiari jarraituz, herria helenizatzen jarraitu zuten, gero eta indar handiagoz. Neurri handiagoan edo txikiagoan, Jerusalemeko agintariak eta apaiz-familia boteretsuenak Herodesen jarraitzaileen lankide izan ziren. Hartara, nolako etorkizuna izango zuen herri aukeratuak? Non ote zen Itunaren Jainkoa? Ez ote zuen esku hartuko?

3. Jainko Salbatzailearen bila

Halako batean, Jesusek artisaulana utzi, familia alde batera utzi eta alde egin zuen Nazaretetik, basamortuan barneratzeko. Ez zihoan Jainkoaren esperientzia sakonago baten bila, bere barne-egarrria asetzeko. Jesus ez da harmonia pertsonalaren bila dabi-

len mistikoa, Budaren antzera. Bere herriaren *indar salbatzaile* bezala bilatzen du Jesusek Jainkoa. Jendearen sufrimenduak sufriarazten zion: erromatarren basakeriak, nekazariak itozten zituen zapalkuntzak, Ituna faltsutu izanak, bere herriaren egoera etsigarriak.

Bataiatzailearekin topo egin zuenean, ez zuen artean Jesusek proiektu propiorik. Hari entzutean, liluraturik geratu zen. Sekula ez zuen halakorik ikusi. Jesusentzat, Joan ez zen profeta hutsa. *Profeta baino zerbait gehiago* zen. Areago, *emakumeagandik sortutakoen artean handiena* zen. Zerk liluratu zuen, ordea, Jesus? Zer ikusi zuen Joanengan eta haren mezuan?

Bere garaiko beste talde erlijiosoen kasuan ez bezala, Bataiatzaileak guttiaren sorburura jotzen zuen: Israelen egoera larri hau bere bekatuaren eta bihurrikeriaren ondorioa du. Laburra eta zuzena da haren diagnostikoa. Herri aukeratuaren historiak porrot egin du. Egungo krisia ez da beste bat gehiago. Bere bekatu-katean iritsi duen azken kate-maila du hori Israeliek. Orain, Jainkoaren behin betiko epaiari aurre egitea besterik ez zaio falta; izan ere, Jainkoak *ezarria du aizkora zuztarrean* fruiturik ematen ez duten zuhaitzak botatzeko.

Bataiatzailearen hitzetan, gaizkiak dena kutsatu du. Tenplua bera ere ku-

tsaturik dago; ez da jadanik toki santua: han eskaintzen diren sakrifizioek ez dute balio bekatuak barkatzeko. Alferrik da ilusioak egitea. Ituna hautsirik dago. Israelen bekatuak desegin du. Ez du balio nork bere burua *Abrahamen seme-alabatzat* hartzeak. Israel herria, esateko, jentilen maila berean dago. Berriz ekin behar dio herriak salbamen-historiari.

Joanek ez zuen herria etsipenean murgilarazi nahi. Aitzitik, salbazio-bide handiosa eskaini nahi zion. Herriak basamortura jo behar zuen berriro, Peerea eskualdera, agindutako lurraldeaz kanpo; tradizioaren arabera, Josuek gidatutako herriak, Jainkoak opari egindako lurraldean sartzeko, Jordan ibaia zeharkatu zuen puntu hartara. Bere bekatuak aitortu behar zituen han herriak eta Jordango bizi-uretan

bekatuen barkazorako bihozberritzearen bataioa hartu. Garbituak izan ondoren, berriro zeharkatu behar zuten Jordan ibaia agindutako lurraldean sartzeko eta Israel berria eraikitzeko, *bihozberritzearen dinako fruituak* emanaz. Bataiatzailearen beraren esanetan, prestaketa baino ez zen haren jarduera. Ondoren, *indartsuago* bat etorriko zen, uraz bataiatuko ez zuena, baizik eta *suaz* eta *espiritu santuaz*. Hark gidatuko zituen denak nor bere zorira, galbidera nahiz salbaziora.

Jesusek, ikuspen handios horrek liluraturik, Bataiatzailearen mezua onar-

tu eta bera bataiatzeko eskatu zion. Joanekin bat zetorrela esan nahi zuen horrek: herri osoak errotiko konbertsioa beharrezkoa zuela eta, bereziki, bazuela itxaropenik. Dena has zitekeen berriro. Liluragarria iruditzen zitzaion herria eraldatzearen ideia, hainbeste injustizia eta sufrimendutatik herria askatua ikustea, herria Ituna gordez bitzta duin eta zorionsua gozatzen ikustea.

Jesusek ez zion eskatu bataiatzeko bakarrik, baizik eta bere konbertsioa bera ere zehaztu egin nahi izan zuen: handik aurrera elkarlanean jardungo zuen Bataiatzailearekin, herria Jainkoaren etorrerarako prestatzeko. Ez zen itzuli Nazaretera. Familia eta lana alde batera utzi zituen, eta Bataiatzailearen inguruan gelditu zen, hari bere lanean laguntzeko. Izan ere, ba ote zegoen Israel epaitu eta salbaterara zetorren Jainko hori onartzeko modu hoberik?

4. Jainkoaren erregetzaren profeta ibiltari

Herodes Antipasek Joan hil zuenean, gauzak asko aldatu ziren. Bataiatzailearen proiektua eten egin zen. Zer izango zen herriaz, Jainkoaren epaiketarako prestatzen ari zenaz, profetarik gabe? Zer egingo zuen Israelen Jainkoak?

Modu harrigarrian erreakzionatu zuen Jesusek. Ez zuen utzi alde batera Joani eragiten zion itxaropena, baizik

eta inoiz uste izan gabeko mailara eram zuen. Ez zuen bataiatzen jarraitu. Amaitutzat eman zuen Joanek bultzatu zuen prestaeraldia. Haren heriotzak ez zekarren Jainkoaren egitasmoen porrotik. Aitzitik, aurreratu egingo zuen Jainkoak bere esku-hartzea, eta ez Joanek eta beste inork pentsa ezin zezaketan moduan jardungo zuen. Iritsi da Jainkoa, jadanik, bere konbertsioa erabat burutu ezin izan duen herri honetara; alabaina, ez dator, Jesusen esanetan, Epaile sumindu bezala, Aita Salbatzaile bezala baizik. Herriak Jainkoaren ezin sinetsizko errukia ezagutuko du orain, eta ez haserre suntsitzailea.

Jesus lengoaia berriaz hasi zen hizketan. Markosen arabera, hau aldarrikatzen zuen: *Betea da garaia, eta gainean duzue Jainkoaren erregetza. Bihozberri zaitzte eta sinetsi berri ona*. Herriak konbertsiorako deia entzun behar du, baina bihozberritzea ez da penitentzia egitea eta epaiketarako prestatzea, baizik eta Jainkoaren erregetzan sartzea eta haren errukia onartzea da.

Jesus, basamortua utzi eta Galileako herrietan zehar hasi zen Jainkoak gizon-emakume guztiei eskaintzen dien salbazioa hots egiten: Joanek bataiatu zitueni bakarrik ez, baizik eta bataiatu gabeei ere bai. Jendeak ez zuen jada basamortura jo beharrik. Jesus bera zebilen, ikasleekin batera, agindutako lurraldean barrena. Gali-

leako herrietan zehar egiten ari zen bizimodu ibiltari hura Jainkoaren bisi-taren sinbolo zen: Aita bezala zen Jainkoa, bere seme-alaba guztientzat bizitza duinagoa eta zoriontsuagoa ezartzeko.

Basamortuko bizimodu latza ere utzi eta biziera alai eta jaitsua hartu zuen Jesusek beste haren ordeaz. Zentzurik ez zuen barauari eusten jarraitzeak. Bataioaren keinua alde batera uzteko garaia iritsia zen, jai-giroko otorduak, guztiei irekiak, ospatzeko. Jainkoaren barkamena hartzeko, ez zegoen Tenplura igo beharrik ordain-opariak eskaintzera; ez eta Jordango uretan murgildu beharrik ere. Jesusek, Jainkoaren izenean, doan eskaintzen zien hori guztia, erregetzaren berri ona onartzen zutenei.

Baina era zehatzagoan aldarrikatu nahi zuen Jesusek Jainkoaren errukia. Horregatik, Bataiatzailea sekula aritu ez zen jardueran aritu zen Jesus: inork sendatzen ez zituen gaixoak sendatzen, bere zorira utziak ziren pertsonen sufri-mendua arintzen, inork ukitu nahi ez zituen legenardunak eta kutsatuak ukitzen, haurrak eta xumeak bedeinkatu eta besarkatzen eta mespretxatutako emakumeei duintasuna itzultzen. Denei zegokien Jainkoaren hurbiltasun salbatzailea sentitzea, baita duintasunik txikiena zutenei ere: zerga-biltzaileei, emagalduei, deabruak hartutakoei, samariarrei eta baita paganoei ere.

Alde batera utzi zuen Jesusek basamortuko hizkera zakarra. Poesia bihurtu zen haren hizkera. Biziaz beterik ziren parabolak kontatzeari ekin zion. Liluratua gelditzen zen herria. Jainko onberaren hurbiltasunaz mintzo zitzaien dena: zeruko txoriak eta soroko uztak, lurrean ereindako hazia eta irinorea harrotzen zuen legamia. Dena aldatzen ari zen Jesusekin. Jadanik inor ez zen mintzatzen Jainkoaren *berehalako haserreaz*. *Biziaren laguna* den Jainko baten esperientzia zekarren Jesusek.

5. Jainkoaren berri onaren ekarle

Judu-herriak dudarik ez zuen Jainkoa *zeru-lurren sortzailea* dela aitortzeko, kreaio osoa kontrolatzen duela eta Israelen historia gidatzen duela. Horregatik, Errege eta Jaun subirano aldarrikatzen zuten Tenpluko liturgian. Baina, aldi berean, belaunez belau, gaizkiaren ikaragarrizko indarra bizi zuten. Jesus jaio zenean, seiehun urte baino gehiago zeramaten atzerriko potentzien menpean. Lehenik, asiriarrak eta babiloniarrak izan ziren; ondoren, Alexandro Handia eta haren ondorengoak. Oraingoan, Erromako inperio ankerraren menpe zeuden.

Babiloniako erbestealdiaren esperientzia gogorrean eta, bereziki, erbestealdiaren ondoan joan zen garatzen juduen artean itxaropen hau: Jainkoak laster esku hartuko zuela, Israel zapal-

tzen zuten inbaditzaile paganoak suntsitzeko eta herriaren baitan justizia ezartzeko. Itunarekiko leialtasunera itzuliko zen Israel eta Jainkoaren bakea ezagutuko zuen azkenean.

Jesusen garaian bizi-bizi zegoen itxaropen hau. Idazle apokaliptikoek irudi-mundu fantastikoa garatzen zuten: nagusitua zegoen gaizkia munduan, baina era miresgarrian eta berehala esku hartuko zuen Jainkoak gaizkia suntsitzeko eta *zeru berriak eta lur berria* sortzeko. Fariseuen ingurumenean legea leial betetzen ahalegintzen ziren; Torah onartzea *erregetzaren uztarria* onartzea zen; herria santu egingo zenean, Jainkoaren erregetza oldartuko zen. Qumraneko monasterioko larunbateko liturgian, monjeek Jainkoa zeruetako Errege bezala ospatzen zuten eta laster etorriko zela espero zuten, erromatarrak (Kittim) eta ilunpeetako seme-alabak suntsitzeko. Herriak, bitartean, gogo biziz eskatzen zuen Jainkoaren etorrera, *Qaddish* bezalako otoitzetan: *Goretsia eta santua izan bedi zure izen gorena munduan... Sor bedi berriro haren erregetza zuen bizitzan... laster eta berandugabe*.

Jesusek denak harriarazi zituen bere predikuaz: Iritsi da Jainkoaren erregetza. Hemen dago, bizitzaren erdian. Ez dugu gehiago zertan itxaron haren esperoan: *Begira, Jainkoaren erregetza zuen artean dago jadanik*

(Lk 17,21). Ez ibili zeinu ikusgarrien bila, ez galdu denbora idazle apokaliptikoen espekulazioekin. Eskura duzue Jainkoaren erregetza, onar eta esperimenta dezakezue. *Jainkoaren erregetza zuen barruan eta kanpoan dago* (Tomasen Ebanjelioa, 3). Jesusen ebanjelioan eta keinu askatzaileetan salbatzaile eta biziaren adiskide bezala oldartzen ari den Jainkoa onartzeko unea da. Herriak bizi zuen zoritxar hartan nabari daiteke jadanik Jainkoaren indar apala baina boteretsua, Israelen askapena abian jartzen ari dena.

Jendeak entzun zezakeen berririk onena zen Jainkoaren etorrera hura. Jesusen esanetan, Jainkoa ez dator suntsitzera, askatzera baizik. Ez du nahi Israelen arerioak suntsitzea, ezta bekariak zigortzea ere. Jainko hau hots egiten du Jesusek: *Eguzkia zintzoentzat eta gaiztoentzat ateratzen duena, eta euria zuzenentzat eta zuzengabeentzat isurtzen duena* (Mt. 5, 45). Jainkoa ez dator mundua bere ahalmen menperatzaileaz kontrolatzera. Bere ahalmen kreatzaile eta salbatzaileaz gaizkiaren indarrak suntsitzera dator.

Jainkoa ez dator ez erlijioa berrindartzera, ezta moral jakin baten betekuntza segurtatzera ere. Jesus ez da jartzen *herri aukeratuaren alde jentilen bizkar*. Ez ditu defenditzen zuzenak eta Legea betetzen dutenak Legea betetzen ez duten fedegabeen

bizkar. Ez die iragartzen salbazioa Jordanen bataiatuei eta kondenzazioa damugabeei. Guztien Aita da Jainkoa. Guztiei opa die bizitza duinagoa eta zoriontsuagoa.

6. Bizitzaren sendatzaile

Garantia historiko handienaz berma ditzakegun datuetako bat da Jesusek gaixoekiko bizi zuen hurbiltasuna eta lehentasunezko arreta. Honela iragarri eta egin du presente Jesusek Jainkoaren salbazioa: legenardunak, itsuak, gorrak, elbarriak, zoroak, bizimodu osasuntsua egiteko gauza ez diren gizon-emakumeak, bekari eta lohi omen direlako gizarteak mespretxatu eta bazterrean utzi dituenak sendatuz.

Jesusek ez die osasun fisikoa soilik eskaintzen. Aldi berean, bizitza osoa eraberritzen die. Bakardade eta marjinezioetik askatzen ditu, mesfidantza eta etsipenetik ateratzen, Jainkoarekin adiskidetzen, elkarbizitzara ekartzen, bakean bizitzeko adoretzen ditu. Bataiatzailearen ikasleei, etorri behar duena Bera ote den galdegiten diotenean, argi eta garbi erantzuten die Jesusek: *Itsuek ikusten dute eta herrenak badabiltza, legenardunak garbi gelditzen dira eta gorrek entzuten dute, hildakoak pizten dira eta behartsuei berri ona hots egiten zaie* (Mt 11,5). Sendakuntzak dira Jainkoaren indar salbatzailea gizakien artean jadanik ari denaren ezaugarririk argiena. *Deabruak Jainkoaren inda-*

rrerz botatzen badituz, argi dago Jainkoa zuen artean errege izaten hasia dela (Lk 11,20 = Mt 12,28).

Jesusen esanetan, Jainkoaren erregetza iristen ari da, baina ez Tenpluko liturgia nagusian, ezta Qumraneko monjeen bizimodu garbi eta zorrotzean, ezta lege-maisu eta fariseuek eragindako Legearen betekuntzan, Jesussek gaixoak sendatuz egiten dituen erruki-ezaugarrietan baizik. Jesusentzat, lehena ez da erlijioa, bizitza baizik. Mehatxupean, gutxitua eta hondatua dagoen tokian bizia zaintzea eta sustatzea da lehenengo gauza Jainkoaren erregetzan. Lehen-lehenik, bizitza duina bermatu behar da, duintasunik gabe bizi diren eta gizabidezko eran bizi ez diren pertsona guztientzat.

Legenardunak eta deabruak hartutakoak sendatzea da, agian, ezaugarriarik adierazgarriena. Jendeak beldurra dien eta mespretxatzen dituen gizon-emakume horiengana hurbiltzen da Jesus: fisikoki, sozialki eta erlijioaren mailan baztertuak diren horiengana, eta gizarteak eta erlijioak kendu dizkieten osasuna eta duintasuna itzuli nahi dizkie. Jesusentzat, Jainkoaren erregetzaren alde jardutea bizitza osasuntsuagoaren alde borrokatzea da: *Gaixoak dira medikuaren beharra dutenak, eta ez osasun onekoak*. Horregatik, erlijio bat egiazkoa den juzgatzeko lehenengo irizpidea, bizia ala heriotza dakarren aztertzea da, bizitzaren gozamen osa-

sungarria sustatzen duen ala deuseztatzen duen egiaztatzea.

7. Pobreen duintasunaren defen- datzaile

Jainkoaren erregetza ez da berri ona pertsona guztientzat, era indiskriminatuan. Pobreei dagokie hura. Pobreak ditu benetako hartzaile: muga-egoeran bizi diren gizon-emakume horiek, beren burua defendatzeko gauza ez direnak, boteretsuen tratu txarra pairatzen dutenak, gizarteak baztertu dituenak. Jainkoaren etorrera zoriona da horientzat guztientzat: *Zorionekoak behartsuok, zuek baituzue Jainkoa errege. Zorionekoak orain goseak zaudetenok, aseko baitzaituzte Jainkoak. Zorionekoak orain negar egiten duzuenok, barre egingo baituzue* (Lk 6, 20-21).

Pobreek sufritzen egotea da Jainkoa oraino errege ez izatearen frogarik argiena, haren justizia oraino urrun dagoenarena. Baina azken hitza ez dago Tiberioren eta Jerusalemeko apaizen familien esku. Jesus konbentzitura dago honetaz: Jainkoa esku hartzen hasi bada, gauzak aldatzeko dela. Pobreak ez dira besteak baino hobek Jainkoaren aldetik tratu pribilegiatua merezi ahal izateko. Pobreak eta zapalduak izatea dute beren pribilegioaren azken arrazoia, eta Jainkoa ezin izan munduan errege, inorengandik justiziarik jasotzen ez duten horiei justizia eginez baizik, inork ere babesten ez dituen

horiek babestuz baizik. Justiziaren beharrean bizi dena da pobrea. Horregatik, berri pozgarria da harentzat Jainkoaren etorrera.

Horretan datza Jesusek irakasten eta era askotan sustatzen duen Jainkoaren berri ona. Jainkoa gizakien artean errege bada, erromatarrek ez dituzte juduak gurutziltzatu behar, boteretsuek ez dute ahulez abusatu behar, aberatsek ez dituzte pobreak esplotatu behar, gizonezkoek ez dituzte emakumeak menpean hartu behar. Gizateriaren azkena *jai-giroko otordu* bezala irudikatzen du Jesusek, zeinetan erabateko elkertasunean gozatu ahal izango baitituzte gizon-emakumeek Jainkoaren bedeinkapenak.

Inork onartzen ez dituenak onartzen ditu Jesusek; bere bizitzan tokia egiten die inoren bihotzean tokirik ez dutenei. Baina zerbait gehiago ere erantsi behar da. Asko izan dira historian zehar, pobreak maitatu izan dituztenak. Alabaina, zaila da Jesus bezalakorik aurkitzea, Jesusek, pobreak maitatzeaz gain, ez baitu ezer ez haiek baino gehiago, ez haiek beste inor, ez erlijioa edo moralara, ez legea edo tradizioa. Pobreenganako Jesusek duen maitasunak argi berriz erakusten digu Jainkoa nor den.

8. Jainkoaren errukiaren predikari

Jesusek ez du inoiz argitu Jainkoaren erregetza zertan datzan, baina para-

bolen bidez iradokitzen digu Jainkoak nola jarduten duen, baita mundua nola izango litzatekeen ere denek berak bezala jardungo bagenu. Jesusentzat, Jainkoak eraiki nahi duen bizitza da Jainkoaren erregetza. Nolakoa izango litzateke gure bizitza, Jainkoa gero eta erregeago izango balitz munduan eta gure artean?

Jesusen garaiko talde erlijioso guztien espiritualitatea Lebitarrak liburuan ongi jaso zegoen funtsezko eskakizun honetatik abiatzen zen: *Izan santu, ni, Jauna, zuen Jainkoa, santua naiz eta* (Leb 19,2). Jainkoaren antzera, herri santu eta garbia izateko eta herri paganoetatik berezia izateko deia jaso zuelako ustea zuen Israelek. Dena dela, herri aukeratuaren barruan, norberak ere bere santutasuna segurtatu beharra zuen. Apaizek eta lebitarrek gainerako herriak baino garbitasun handiagoa bizi behar zuten. Emakumeek baino garbitasun handiagoa dute gizonezkoek, emakumeek hilekoaren eta erditzeen etengabeko kutsapena jasaten omen dute eta. Gaixoak baino garbiagoak dira osasuntsuak. Emagalduek eta zergabiltzaileak baino garbiagoak dira legebetetzailak. Hala, Jainko santu eta garbiaren antzeko izan beharrak gizarte diskriminatzaile eta baztertzaila zekarren berekin.

Jesusek benetako iraultza eragin zuen, Jainkoaren errotiko eskakizuna honela adierazi zuenean: *Izan zaitetz-*

te errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala (Lk 6,36). Jesusek ez du Jainkoaren santutasuna ukatzen, baina santutasun hori ez datza kutsapenetik bereiztean, baizik eta maitasunean eta errukian. Errukia da Jainkoaren izaera, errukia da gizakiaganako duen lehenengo erreakzioa. Horregatik, errukia ez da beste bertute bat gehiago: Jainkoa bezala izateko, Jainkoak bezala sentitzeko eta jarduteko modua da. Jainkoaren maitasun errukitsua bizitzea da Jainkoaren erregeztan sartzea.

Errukiak gidatzen du Jesusen jarduera guztia, eta senide-elkartasun abegitsua eraikitzea du helburu. Etengabe ukitzen ditu legenardunak, etengabe onartzen bekataria eta emagalduek, bera ukitzen uzten dio odol-jarioa duen emakumeari. Ezerk eta inork ezin du geldiarazi Jesus, bekatariei Jainkoaren barkamena eskaintzeko orduan. Jende-mota guztiei irekia dagoen mahaia da haren zeinu sinbolikorik probokatzailena. Zergalariekin eta bekatariekin jaten du, garbiekin eta kutsatuekin. Ez du epaitzen, ez du diskriminatzen. Guztiengana hurbiltzen da, ez moralista bezala, adiskide bezala baizik. *Bekatarien adiskide* deitzen diote. Jesusen arabera, gizon-emakumeek elkar errespetatzen, elkar onartzen duten eta elkarri barkatzen dioten lekuan da Jainkoa errege. Egunen batean, *behartsu, elbarri, itsu eta herrenek* inguraturik ospatu-

ko du Jainkoak bere erreinuko otordua (Lk 14,21).

9. Erlijio konbentzionalaren mai-su kritiko

Mendeetan zehar eraikiz joan den kultura erlijioso konbentzional baten barruan iragartzen du Jesusek Jainkoaren erregetza. Kulturalki ezarri den erlijio horren iturri nagusiak Moisesen Legea eta belaunez belaun transmitituz joan diren tradizio sakratuak dira. Israel herriaren bizitza guztia kutsatzen zuen sinagogetan sustaturiko, judu-jai handietan indarberituriko, Legearen interpreteek arreta handiz gordetako erlijio horrek. Legeari leial obeditzea zen judu jainkozalearen ideala.

Jesus ez da oinarritzen judu-erlijio konbentzional horretan, Jainkoaren errukiaz duen esperientzian baizik. Hots egiten duen Jainkoaren erregetza ez du ateratzen sinagogetan irakasten den doktrinatik, ezta Jerusalemeko Tenpluan bizi ohi den liturgiatic ere. Jainkoaren erregetzan *sartzera* gonbidatzen duenean, kultuan, tradizioan edo legean oinarritutako erlijio konbentzionaletik Jainkoaren errukiaren esperientzian inspiraturiko eta haren arabera moldaturiko bizierara igarotzeko gomendatzen ari da Jesusek.

Aita errukitsuaren parabolaren arabera (Lk 15,11-31), familia bat ezin sortu izatea da Jainkoaren arazoa: batzue-

tan, seme gazteenak etxetik alde egin duelako; beste batzuetan, seme nagusiak etxean sartu nahi ez duelako. Parabolako aitak ez dihardu ezarritakoaren arabera seme-alabak sarituz nahiz zigortuz, baizik eta neurritz gaineko maitasuna eta barkazioa erakutsiz, hartara bere maitasun errukitsuak bakarrik eragiten diola. Espero duen gauza bakarra, seme-ek ere era berean joka dezaten da.

Alabaina, seme nagusiak ez du errukiaren zentzurik. Legeei obeditzea da haren arazo guztia. Benetan esan diezaioke aitari: *Zure agindu bakar bat ere ez dut utzi inoiz bete gabe* (Lk 15,29). Itxuraz, eredugarria da haren biziera. Hala ere, maitasuna zer den ez dakien gizona da, ez da jabetu aitaren maitasun itzelaz, ez da gauza anaia onartzeko eta hari barkatzeko. Bada legea betetzeko era bat, gizartzen eta askatzen ez duena. Azkenean, ez da gai erreinuko jaiian inor sarrarazteko.

Gauza bera gertatzen zaio *Tenpluko fariseuari* (Lk 18,10-14). Zehatz-mehatz betetzen du legea, beste inork ez bezalako bizitza erlijioso zorrotza bizi du, Jainkoari eskerrak ematen dizkio egiten ari den bere bizitza eredugarriarengatik, baina ez daki maitatzea zer den. Zerga-biltzailearekiko gorentasuna eta mespretxua bakarrik sentitzen ditu. Gizon horren barruan legea da errege, baina ez Jainkoa. Bada Jainkoaren erreinura eraman ezin duen erlijioa ulertzeko eta bizitzeko modu bat.

Samariar onaren parabolan (Lk 10,30-37) maisuki laburbildu du Jesusek bere pentsamendua: atzerritar kutsatu horren esku-hartzea eredutzat jotzen du eta Israelgo klase garbienen kritikatzat. Apaizak eta lebitarrak zauritua ikusten dute, baina *bidetik okertu* eta aldendu egiten dira. Egia esateko, ez dira jabetzen gizon haren sufriemenduez, beren apaiz- eta lebitar-garbitasunarentzat mehatxutzat jotzen dutelako. Samariarra, aldiz, zauritua ikusi eta *errukitu egiten da* eta hurbildu egiten zaio, ahal duen laguntza guztia eskaintzeko. Ez da hasten hori bere betebeharra duen ala ez pentsatzen. Ez du ezer betetzeko edo konpliztzeko. Errukiak bakarrik mugiarazten du, apaizaren eta lebitarraren bihotzean falta den errukiak.

Legelariak galdetu zion: *Zein da nire lagun hurkoa?* , hau da, noraino iristen dira nire betebeharrak? Maitasun errukitsuak ez, baizik erlijio konbentzionalak eraginda diharduenaren planteamendua da. Bere parabola amaitzean, planteamendu zuzena egiten du Jesusek: zeinek jokatu du zaurituaren lagun hurko bezala? Zein hurbildu zaio maitasun errukitsuak eraginda? Samariarra ez da hasi bere betebeharrak erlijio-soak zein diren aztertzen. Soil-soilik, Aitak jardun ohi duen moduan jardun du, maitasun errukitsuak eraginda. Horregatik, honela erantzun dio Jesusek judu-erlijioaren ordezkari ofizialari: *Zoaz, eta egizu beste horrenbeste* .

Uste dut, gaur egun ere gauza bera esango ligukeela: XXI. mendeko Eliza, izan zaitez samariarra bezalako. Onar ezazu zeure baitan errukiaren Jainkoa. Entzun gosean, miserian edo umilazioan murgildurik bizi direnen sufrimendua. Defendatu munduko pobreen duintasuna. Bilatu Jainkoaren erregetza eta haren justizia. Gero eto-

rriko da gainerakoa. Lagundu gaur egungo gizarteko gizon-emakumeei duintasun eta zorion handiagoz bizi-tzen. Izan bihotz-errukitsu. Ez epaitu, ez diskriminatu. Ez kondenatu. Iragarri Jainkoa beti berri on bezala. Izan bekatarien adiskide. Bizi fedez eta itxaropenez oihuka: *Etor bedi zure erreinua* .